

Santiago eliza

Udalerrria:

Ermua.

Tokia:

Santiago plaza.

Bisitak egiteko ordutegia:

Goizean: 10:00 - 12:00.

Arratsaldean: 18:00 - 19:00.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

Valdespina jauregia (Udaletxea).
Valdespinako markesa, 1.
Ermua.

Lobiano jauregia.
Goenkalea, 8-10.

Zarra etxea.
Izelaieta, 12. Ermua.

Torreta.
Bizkaia ibilbidea, 25. Ermua.

San Andres eliza.
Eibar.

EUSKARA

BIZKAIKO
ONDARE
HISTORIKOA

Santiago eliza


ERMUA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila
Ondare Historikoaren
Zerbitzua

Diputación Foral
de Bizkaia


Departamento de Cultura
Servicio de Patrimonio
Histórico




Barruko ikuspegia.



Dorra.



Oin-planoa.



E

rmuko irudi ezagunena L. Urgellesek 1890ean egindako grabatuak erakusten duena da: Valdespina jauregi zaharra, gaur egun udaletxe dena, eliza agertzen den fondoan ebakia.

Linternak eta kanpandorreak elkarrizketa formal agerikoa egiten dute, oso nabarmena dokumentuan. Antzekoak dira Sebastian de Lekuna (edo Lekuona) maisu hargin gipuzkoarrak obra biak proiektatu eta garatu zituelako, zein On Andres de Orbe eta Larreategi kardinalak 1729an kontratatu zuen bere etxalekua eraikitzeko.

Koruaren azpian hilobirako lekua utzi ziotelako erkideenganako esker onez, kardinala konprometitu egin zen Santiago elizaren obra amaitzera, kanpandorra barne.

Eraikina

Elizak ehun eta hogeita bost urte baino gehiago zeraman obretan. 1600 ingurutik ari zen eraikin errenazentista oso eder bat eraikitzen, ostiko artean alboko kapera altuak dituen hiru tarteko nabe bateko eliza motari dagokiona, alegia. Nabearen aurrealdean, gainera, kapera nagusi oktogonal estuago bat dago. Azken emaitza eliza handia da, ahalduna, hiru nabetaoak baino ekonomikoagoa, eta, hala ere, antzeko prestazioak eskaintzen dituela.

Kanpandorrearen beheko aldean prisma paralelepipedo hutsekoa da, ostiko markaturik gabekoa, hauek barrualdera sartuta daudelako, nahiz eta gehigarri modernoek ezaugarri hauek antzematen ere uzten ez duten. Ez da horrela gertatzen dorrearen gaineko aldearekin, kanpai areto oktogonala duena, eta kupula eta tontor erako errematearekin, lengoia desberdinekoa, barrokoa zalantzarik gabekoa.

Tenpluaren barruko edertasuna oinarritzen da, batetik, espazioaren formulazio harmonikoan, ostikoak zutabe toskanar bailiran aurreratzearen moduan, eta, bestetik, estalduran, aukera bi eskaintzen duena: tradizionala, gotikoaren manierakoa (nabean oso diseinu konplexuak dituen gurutzeria), eta modernoa, kaperen erromatar era (kanoi kutxadunak).

Eliza horrela zegoen planteatuta hasieratik, baina obrak geldotasun aspergarriarekin garatu ziren Orbe Kardinala eta Lekuna maisua eskenatokian sartu ziren

arte, XVIII. gizaldia aurrera zihoala. Lekuna, sentsibiltate handiaz, proiektua jarraitu zuen ezer nabarmenik aldatu gabe, orain administratzen dituen klabeak izan ezik, askoz plastikoagoak direnak, irten handiko kapuluak. Proiektua koroarekin handitzen da, gurutzeria-gangaduna ere, eta berandu egindako oso izaera erroko markatuzko kapera bi. Ez zen Lekuna, ordurako hila, hartutako konpromezuak amaituko zituen, Joseph de Zuaznabar haren koinatua baizik.

Altzariak


Orberen ondare aberatsa nabarmena da elizaren altzarian, batez ere erretaula nagusian, organoan eta kardinalaren beraren hileta monumentuan eta bere kaperan.

Erretaula makina barroko ikusgarria da, pintatu gabeko intxaur zurezkoa, apainketaz zamatutako zutoin salomonikoak, uhaleria militarrez bereziki. Eskultura polikromatuak dauzka -ikusgarria Santiago mairuen gainetik zamalkatzen Clavijoko gudan-, inoiz Juan Antonio de Hontañon kantabriarraren zizelkatze manierarekin lotu egin dena.


Erretaularen hainbat elementu formal bat egiten dira organokoekin, monumentala eta polikromiarik gabeko zurezkoa ere, balitekeelako obra biak proiektugile berarenak izatea, beharbada ebanisteriako egiturez ere ulertzen zuen Zuaznabarrenak.

Xumeagoak dira urrez polikromatutako gainerako zurezko lau erretaulak, proto-errokoko eta erroko estilokoak. Ezkerrekoan nabarmentzen da Amabirjina Haurrekin marmol irudia, alemaniar jatorrikoa eta, inskripzioaren arabera, Lope de Buztintza ermuarrak 1542an oparitutakoa. Eskumakoan

interes berezia du Haurra eskutik helduta duen San Josek, zur landu bikaina, egiantzekoa eta dinamikoa, kanpoko egilea, gortesua, eskatzen duena. Koruaren azpiko irudiak eta kardinalaren jaspezko bustoa hiletazko kutxa gainean, xeheagoak dira.



Erretaula nagusia.



Koruaren azpiko kapera.